BIZKAIA ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2016

BIZKAIA ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2016

# Beaz 2016 Bizkaia

**Elkarlanean bat, ahaleginetan mila**
La cooperación hace la fuerza





## Imanol Pradales

**Ekonomi eta Lurralde Garapeneko foru diputatua**

Diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial

**Bizkaiko Foru Aldundiak bere buruari ezarri dizkion lehentasun nagusien artean jarduera ekonomikoa suspertzea eta lanpostuak sortzea daude eta, hori lortzeko, Ekonomi eta Lurralde Garapenerako Sailak bost ekite-ardatz handi finkatu ditu, bere azpiegituren bidez orekatuta eta kohesionatuta egongo den lurraldeko enpresen berrikuntza, lehiakortasuna eta nazioartekotzea bultzatzeko. Hori guztia gure ADN industriala ahaztu barik eta Bizkaia hobe baterantz aurreratzen jarraitzeko tresnarik onenak jakintza eta talentua direla aintzat hartuta. Goazen!**

La Diputación Foral de Bizkaia se ha marcado la recuperación de la actividad económica y la creación de empleo como una de sus máximas prioridades y, para lograrlo, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial se ha fijado cinco grandes ejes de actuación para impulsar la innovación, competitividad e internacionalización del tejido empresarial de un territorio equilibrado y cohesionado a través de sus infraestructuras. Todo ello sin olvidar nuestro ADN industrial y con la vista puesta en el conocimiento y el talento como mejor herramienta para seguir avanzando hacia una Bizkaia mejor. Goazen!

**Aldundiak legealdi honetarako ezarri dituen lehentasun nagusietako bat ekonomia suspertzea dago. Zein da zure ikuspegia oraingo egoerari buruz?**
Ekonomiaren susperraldia abian dago, baina zuhurrak izan behar dugu, nazioarteko ingurua gorabeheratsua delako eta gurea bezalako ekonomia ireki batean horrek zuzenean eragiten gaitu. Gainera, krisiaren ondorioak gainditzeko denbora behar da eta kalitateko lanpostuak jarraikortasunez sortu behar dira.
Nire iritziz gure Lurraldeko ekoizpen-inbertsioa, gizarte eta enpresa berrikuntza eta nazioartekotzea sustatzeko politikei heldu behar diegu. Horiexek dira gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko osagai nagusiak. Lehiakortasuna hobetzen badugu eta ekonomia suspertzen badugu lanpostuak sortu ahalko dira.

**Hain zuzen ere Bizkaia munduarekin konektaturik da Ekonomi eta Lurralde Garapenerako Sailak legealdi honetan ezarri duen lehenengo ekite-ardatza.**
Bizkaiko enpresek merkatu globalean lehiatu ahal eta behar dutela uste dut, benetan, eta Bizkaiko Aldundiak hori lortzeko behar duten laguntza ematen jarraituko du. Enpresa Txiki eta Ertainak nazioartera zabal daitezen lortzeko eta nazioartekotzeko partzuergo eta itunak sustatzeko programen aldeko apustuari heldu behar diogu. Horretarako, 2016an handitu egin dugu atal horretako aurrekontua. Gainera, nazioarteko zenbait inguru eta forotan Bizkaia nabarmenago ager dadin lortu behar dugu, lehiatzeko ditugun abantailak ezagutarazteko eta Bizkaira inbertsioa erakartzeko.

**Bizkaiko enpresagintza batez ere ETEek osatzen dute. Enpresen arteko lankidetza sustatzeko aldundiak Elkarlanean programa jarri du legealdiko ekintza garrantzitsuenen artean.**
Bizkaiko ekonomiaren erradiografia ezaguna da. Gure ekoizpengintzaren %95 baino gehiago 80000tik gora enpresa txiki eta ertainek eta mikroenpresak osatzen dute-eta. Mundu globalean lehiatu nahi badugu, prozesuak sustatu behar ditugu enpresa txiki eta ertain hauek zerbitzuak konpartitu ditzaten eta globalki
lehiatzeko osagarriak izan daitezkeen gaietan elkarlanean ari daitezen. Eremu honetan batzea biderkatzea da. Horixe da Elkarlanean programaren asmoa eta 2016-2019 denboraldian 6980000 euroko inbertsioa egitea aurreikusi dugu.

**Bizkaia Enpresa gisako bilerak enpresen kezkak ezagutzeko neurgailu onak dira?**
Zalantzarik gabe. Honelako bilerok garrantzitsuak dira enpresen lana goraipatzeaz gain loturak estutzen jarraitzeko aukera ematen dutelako. Gainera, enpresek eurek beren esperientziak elkartruka ditzaten toki paregabea dira. Horretan ere datza lankidetza, pribatu-pribatua nahiz pribatu-publikoa izan.

**La Diputación se ha fijado la recuperación económica como una de sus grandes prioridades para esta legislatura. ¿Qué análisis hace de la actual coyuntura?**
La recuperación económica está en marcha, pero hemos de ser prudentes porque el entorno internacional es incierto y, en una economía abierta como la nuestra, esto nos afecta directamente. Además, la superación de las consecuencias de la crisis requiere de tiempo y de consolidar la creación de empleo sostenida y de calidad.
Creo que debemos poner el énfasis en políticas de promoción de la inversión productiva, la innovación social y empresarial, y la internacionalización de nuestro Territorio. Estos son los ingredientes fundamentales para mejorar la competitividad de nuestras empresas. En la medida en la que mejoremos la competitividad y reactivemos la economía, podrá crearse empleo neto.

**Una Bizkaia conectada al mundo es, precisamente, el primero de los ejes de actuación que se han marcado para esta legislatura desde el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.**
Creo firmemente que las empresas de Bizkaia pueden y deben competir en el mercado global y la Diputación de Bizkaia va a seguir dándoles el apoyo que necesitan para lograrlo. Tenemos que seguir apostando por los programas de internacionalización de pymes y el fomento de consorcios y alianzas para la internacionalización. Para ello este año 2016 hemos incrementado el presupuesto en esta partida. Además, tenemos que lograr una mayor visibilidad de Bizkaia en determinados entornos y foros internacionales, a fin de dar a conocer nuestras ventajas competitivas y atraer inversión a Bizkaia.

**El tejido empresarial de Bizkaia está conformado mayoritariamente por pymes. La Diputación ha situado el programa Elkarlanean para fomentar la colaboración empresarial entre las principales actuaciones de la legislatura.**
Es conocida la radiografía económica de Bizkaia, formada por más de 80000 pymes y micropymes que suponen más del 95% de nuestro tejido productivo. Si queremos competir en un mundo global, tenemos que promover procesos para que estas empresas pequeñas y medianas aúnen esfuerzos, compartan servicios, colaboren y cooperen en aquellos elementos en los que pueden ser complementarias para competir globalmente. En este ámbito sumar equivale a multiplicar. Ese es el espíritu del programa Elkarlanean para el que se ha previsto una inversión de 6980000 euros en el periodo 2016-2019.

**Encuentros como este Bizkaia Empresa, ¿son un buen termómetro para conocer las inquietudes del tejido empresarial?**
Sin duda. Este tipo de encuentros son importantes no sólo por cuanto suponen de reconocimiento hacia las empresas, sino también para seguir estrechando vínculos. Además, son un escenario perfecto para que las propias empresas puedan compartir experiencias. En eso se basa también la cooperación, tanto privada-privada, como público-privada.

# Bizkaiko enpresen garapen eta lehiakortasunarekin konprometiturik gaude

## Estamos comprometidos con el desarrollo y la competitividad del tejido empresarial de Bizkaia



**Ainara Basurko**

Beazko zuzendari nagusia

Directora general de Beaz



**Beaz proiektu berritzaileak garatzeko ekintzaileei eta enpresei laguntza ematen dien Ekonomi eta Lurralde Garapenerako Sailaren foru erakundea da. Zelan gauzatzen da lan hori eguneroko jardunean?**
Beazen xedea enpresa ekimen berritzaileak sustatzea eta dauden enpresak lehiakorragoak izan daitezen laguntzea da, hazkunde, berrikuntza eta nazioartera zabaltzeari dagokionez dituzten erronketan bultzada emanez. Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiaren zenbait diru-laguntza kudeatzen ditugu eta proiektuak abian jartzeko, garatzeko eta finkatzeko zerbitzuak eskaintzen ditugu. Zehazkiago, 2015ean 855 proiektu aztertu ditugu eta horietatik 601ek aldundiaren diru-laguntza jaso dute. Aurreikuspenen arabera proiektuok 1450 lanpostu sortuko dituzte 3 urtetan eta 350 milioi euro fakturatuko dituzte.

**Beazek enpresa proiektuak bultzatzeko zerbitzuak ere ematen ditu. Zer eransten diete diru-laguntzei?**
Proiektu berritzaile bat aurrera eramaten den bitartean agertzen diren une kritikoetan laguntzeko zerbitzu-ibilbidea daukagu. Inkubazio, mentoring, bizkortze, networking eta nazioartekotze gaietan egiten ditugun proposamenak horretarako bideratuta daude. Zerbitzuok egokituz doaz enpresek adierazten digutena kontuan hartuz. Esate baterako, enpresak bizkortzekoa laugarren Bizkaia Enpresa bileran egindako proposamenen ondorioz sortu zen. Diru-laguntzekin batera, zerbitzu hauek gure jardunaren alderdi sendoetako bat dira. 2015ean 235 proiektu baino gehiago gure zerbitzuez baliatu dira eta haztegietan 72 ekimen inkubatu dira.

**Hau dela bestea dela, Beazek harremanak ditu enpresa kopuru eder batekin. Bizkaiko errealitatea zehatz-mehatz ezagutzea esan nahi du horrek…**
Horixe da helburua. Foru erakunde legez Bizkaiko enpresen garapen eta lehiakortasunarekin konprometiturik gaude. Enpresei balioa eman nahi eta behar diegu eta horretarako, batez ere, haien ondoan egon beharra dago, haien egoera, beharrizanak eta itxaropenak ezagutu behar dira. Beazko giza taldeak ekintzailetza eta berrikuntzaren ekosistema sakon ezagutzea funtsezkoa da enpresen errealitatea baloratzerako, lan-metodoetan berritzeko eta politika publikoak enpresen errealitatera modurik onenean egokitzen laguntzeko.

**Beaz es la entidad foral del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial que acompaña a las personas emprendedoras y empresas en el desarrollo de proyectos innovadores. ¿Cómo se concreta ese trabajo en el día a día?**
La misión de Beaz es promover nuevas iniciativas empresariales innovadoras y contribuir a la competitividad de las empresas existentes acompañándolas en sus retos de crecimiento, innovación e internacionalización. Para ello, gestionamos distintas ayudas de la Diputación Foral de Bizkaia y prestamos servicios para el lanzamiento, desarrollo y consolidación de los proyectos. En términos más concretos puedo decir que en 2015 se han analizado 855 proyectos de los que 601 han recibido ayuda económica foral. Estos proyectos tienen una previsión de generar 1450 empleos en 3 años y de facturar 350 millones de euros.

**Beaz presta también servicios que ayudan a impulsar los proyectos empresariales ¿Cómo complementan las ayudas?**
Contamos con un itinerario de servicios que trata de actuar sobre los puntos críticos que existen en el transcurso de un proyecto innovador. Nuestras propuestas de incubación, mentoring, aceleración, networking o internacionalización están orientadas a ello. Esos servicios van adaptándose en función de lo que nos transmiten las empresas. Por ejemplo, el de aceleración nació a raíz del cuarto encuentro Bizkaia Empresa. Junto con las ayudas, son uno de los puntos fuertes de nuestra labor. En 2015 más de 235 empresas han contado con nuestros servicios y ha habido 72 iniciativas incubadas en los distintos viveros.

**Entre unas cosas y otras, Beaz trata con un número importante de empresas. Su visión de la realidad empresarial vizcaína tiene que ser muy precisa…**
De eso se trata. Como entidad foral estamos comprometidos con el desarrollo y la competitividad del tejido empresarial de Bizkaia. Queremos y debemos aportar valor a las empresas y ello exige, sobre todo, estar cerca de ellas, conocer su situación, necesidades y expectativas. Que el equipo humano de Beaz tenga un profundo conocimiento del ecosistema de emprendimiento e innovación es clave a la hora de valorar la realidad de las empresas, de innovar en los métodos de trabajo, y de contribuir a una mejor adaptación de las políticas públicas a la realidad empresarial.

**Enpresekin soilik ez, berrikuntzaren beste eragile batzuekin ere harreman estua dauka Beazek. Lankidetza garrantzitsua da?**
Emaitzak lortzea zuzenean lotua dago guk bezala ekonomia bultzatzeko eta dinamizatzeko rola betetzen duten beste eragile batzuekin elkar-ekiteko daukagun gaitasunarekin. Osagarriagoak izatea eta sinergiak sortzea ona da denontzat: enpresentzat, pertsona ekintzaileentzat eta antolakunde bakoitzarentzat. Zehaztu nahi nuke lankidetza zentzu orokorrean ulertzen dugula eta, euskal enpresa eta antolakundeen artean sustatzen ahalegintzen garen era berean, Aldundia nazioartean itunak lortzen saiatzen ari da, balioa ekartzeko eta, adibidez, munduari konektaturik dagoen Bizkaiaren irudia zabaltzeko. 2016an hemengo 10 startup Bostonera joango dira Estatu Batuetako enpresa-bizkortzaile handiena den MassChallenge-ren eskutik. Haientzat aukera paregabea da ikasteko eta beren burua ezagutarazteko, eta Ekonomi eta Lurralde Garapen Sailak eta MassChallengek sinatutako akordioaren fruitua da.

**Elkarrizketan gehien errepikatutako hitzak nazioartekotzea eta lankidetza dira. Badago aintzat hartu beharreko beste mezu nagusiren bat?**
Egia esan mezua bakarra da, Bizkaian ekonomiaren hazkundea eta kalitatezko lanpostuak sor daitezen lanean ari garela alegia. Aldundiaren ustez hori lortzeko biderik onena berrikuntza, nazioartekotzea, inbertsioa eta lankidetza bultzatzea da, baina ez da bide bakarra. Energia, sormen-industria, biozientzia eta manufaktura sektoreen aldeko apustu sendoa dago. Inolako zalantzarik gabe, gizarte eta lurraldeari dagokionez, kohesionatuago dagoen Bizkaia baten alde lan egin beharra dago eta administrazio modernoagoa eta hurbilagoa lortzeko konpromisoa ere daukagu. Beazen 30 urte bete ditugu ekintzaile eta enpresen ondoan lanean eta gure helburua ez da aldatu, baina etapa bakoitzean erronka berriak agertzen dira eta guk ere horiekin batera hazi egin behar dugu.

**No solo con las empresas, también con otros agentes de la innovación hay una relación estrecha ¿Qué papel juega la cooperación en Beaz?**
La obtención de resultados está directamente relacionada con nuestra capacidad de interactuar con otros agentes con los que compartimos el rol impulsor y dinamizador de la economía. Crear una mayor complementariedad y sinergias nos beneficia a todos, a la empresa, a las personas emprendedoras, y a cada una de nuestras organizaciones. Sí me gustaría añadir que entendemos la cooperación en un sentido global y que, de igual manera que intentamos promoverla entre las empresas vascas y las organizaciones, la Diputación está haciendo un esfuerzo por establecer alianzas a nivel internacional que, por ejemplo, aporten valor y potencien la imagen de una Bizkaia conectada al mundo. En 2016, 10 startups locales viajarán a Boston de la mano de MassChallenge, la mayor aceleradora de empresas de Estados Unidos. Es una oportunidad única para ellas para aprender, pero también para darse a conocer, y ello es fruto del convenio firmado entre el Departamento y MassChallenge.

**Internacionalización y cooperación son las palabras que más ha repetido en esta entrevista, ¿hay alguna otra idea con la que debamos quedarnos?**
En realidad hay una sola y es que trabajamos para apoyar el crecimiento económico y la creación de empleo de calidad en Bizkaia. La Diputación entiende que apoyar la innovación, la internacionalización, la inversión y la cooperación es la mejor estrategia para lograrlo, pero no la única. Hay una apuesta decidida por los sectores de la energía, las industrias creativas, las biociencias o la manufactura avanzada. Hay una conciencia clara de que hay que trabajar por una Bizkaia más cohesionada social y territorialmente, y hay también el compromiso de ser una administración más moderna y cercana. En Beaz llevamos 30 años trabajando junto a personas emprendedoras y empresas, nuestro objetivo no ha variado, pero en cada etapa hay retos nuevos que nos obligan, también a nosotros, a crecer.

# 2016

–

PREMIO ON BIZKAIA ENPRESA SARIA

**ON Bizkaia Enpresa Sariek** Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak goraipatzen dituzte gure Lurraldean jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzeagatik. Ondo egindako lanari ematen zaio saria. Ekonomi eta Lurralde Garapeneko Foru Sailaren programetara aurkeztu diren proiektuak eta enpresak izan daitezke hautagai.

Los **Premios ON Bizkaia Empresa** son un reconocimiento a las pymes de Bizkaia por su contribución a la generación de actividad económica y empleo en nuestro Territorio. A ellos optan proyectos y empresas que se han presentado a los programas del Departamento Foral de Desarrollo Económico y Territorial y han sido gestionados por Beaz.

2014
2015

–

**Aurreko edizioetan saritutako enpresak**

**2014**
Ariadna Instruments
RDT Engineers
Babcock Valves
Artesanía Graci
Caf Transport Engineering
Grupo Ticketbis

**Empresas galardonadas en ediciones anteriores**

**2015**
DB Iberia
Protec Arisawa
Insertec
Relevo Videogames
Gestamp Tool Hardening
Dynakin

## CMI

–

CMIDURANGO

**BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
CMIk 1997an ekin zion lanari sei langilerekin. Enpresa berria zen, baina ez zen hutsetik hasi. Haren sorburua 1939an Durangaldean sortu zen DYE familia enpresan dago. Haren estrategian berrikuntza nabarmendu egiten da: antolakundearen arlo guztietan agertzen da, produktu propioaren garapena, fabrikatzeko teknologia espezifikoak, nahiz ekoizpen prozesua izan. Gaur egun CMI erreferentzia bihurtu da tamaina handiko piezetarako makina espezializatuaren merkatuan, eta haren produktuak sektore desberdinetan erabiltzen dira: autogintza, aeronautika, energia eolikoa, ekipo-ondasunak, trengintza, etab. Jada 46 lanpostu finko dauzkate.

**PREMIO PROYECTO DE INNOVACIÓN**
En 1997 CMI inicia su andadura con seis personas. Aunque la empresa era nueva, no partía de cero. Su origen está en la empresa familiar DYE, creada en 1939 en el Duranguesado. Su estrategia tiene un lugar común: la innovación, visible en todas las facetas de la organización, sea el desarrollo de producto propio, las tecnologías específicas para fabricarlo y el proceso productivo. Hoy CMI se ha convertido en una referencia en el mercado de la maquinaria especializada para piezas de grandes dimensiones, válida para sectores tan diversos como automoción, aeronáutica, eólica, bienes de equipo, ferrocarril, etc. Actualmente son ya 46 puestos fijos.

## KauTenik

–

KauTenik

**NAZIOARTEKOTZE PROIEKTU SARIA**
Kautenik azpikontratatzailea izatetik autogintza sektoreko enpresa nagusiei zuzenean saltzera aldatu da eta bere lekutxoa lortu du nazioarteko merkatuan. Haren estrategiaren gakoak I+G+bn inbertitzea eta produktu propioa garatzea dira. Berriatuatik ekoizpena beste inora eraman gabe, haren nazioarteko fakturazioa %30 handitu da eta datozen urteetan hazkunde nabarmena izango dutela aurreikusten dute.

**PREMIO PROYECTO DE INTERNACIONALIZACIÓN**
Kautenik ha pasado de ser subcontratista a vender directamente a primeras firmas del sector de la automoción, haciéndose un hueco en el mercado internacional. Las claves de su estrategia son la inversión en I+D+i y el desarrollo de producto propio. Desde Berriatua, sin haber deslocalizado su producción, han visto cómo su facturación internacional aumentaba un 30%, previendo un crecimiento sustancial en los próximos años.

## kuaderno

–

kuaderno learn & grow

**SORKUNTZA PROIEKTU SARIA**
2015an Joseba Legarretak sortu zuen Kuaderno ingelesaren ikasketa haur eta lehen hezkuntzan indartzeko on-line plataforma bat da, batez ere audio-irakurketak, ariketak eta galdera-jokoak erabiliz. Denbora gutxian enpresak tamainako bidea egin du. Gaur egun 6 pertsona ari dira enpresan lanean eta 500 ikastetxetako 100000 ikasle baino gehiagok erabiltzen dute metodoa eta eskaintzen duten eduki propioa. Hazkundearen arintasuna eta prozesuan erakutsitako irizpide egokia dira gehien nabarmentzen diren alderdiak eta 2016rako jarritako erronken artean nazioartera zabaltzea dago.

**PREMIO PROYECTO DE CREACIÓN**
Creada en 2015 por Joseba Legarreta, Kuaderno es una plataforma online para reforzar el aprendizaje del inglés en Infantil y Primaria, fundamentalmente mediante audiolecturas, ejercicios y juegos de preguntas. En poco tiempo la empresa ha recorrido un camino importante. Hoy son ya 6 personas trabajando en ella, más de 100000 estudiantes de 500 colegios utilizando el método, y mucho el contenido propio que ofrecen. La rapidez de su crecimiento y el buen criterio mostrado en el proceso, son los aspectos que más llaman la atención de una empresa que tiene la internacionalización como uno de sus retos en el 2016.

## Ventur Moda

–

Jota+ge

**BIZKAIA SORTZAILEA PROIEKTU SARIA**
Ventur Modaren atzean enpresa baten 30 urte baino gehiago eta Juana Ruiz eta Garbiñe Urdampilleta sortzaileen ahalegin eta grina dago. Denboraldi honetan produktu bereizia sortu dute hiru merkataritza markarekin, ezagunena Jota+Ge delarik. Euren ibilbidean pasioarekin batera nabarmena da da ausardia, eta horren erakusgarria da ehun aitzindarietan etengabe berritzea, lehiakideekin elkarlanean aritzea edo krisiaren ondorioz nazioartera zabaltzea, Europan, Asian eta Amerikan merkatu berriak irekiz.

**PREMIO PROYECTO BIZKAIA CREATIVA**
Tras Ventur Moda hay más de 30 años de empresa y el entusiasmo de sus dos fundadoras, Juana Ruiz y Garbiñe Urdampilleta. En este tiempo han creado un producto diferenciado bajo tres marcas comerciales, la más reconocida Jota+Ge. En su trayectoria, la pasión y hasta cierta osadía es una constante, prueba de ello es la continua innovación en el uso de tejidos pioneros, la colaboración regular con su competencia o la internacionalización derivada de la crisis, abriendo nuevos mercados en Europa, Asia y América.

## ITP Externals

–

ITP

**SPIN-OFF IBILBIDE SARIA**
2013ko amaieran ITPk ITP Externals sortu zuen erronka estrategiko eta teknologiko berriei erantzuna emateko. Denbora gutxian spin-off hau ikasle bikaina bihurtu da eta merkatu berriak zabaltzen ari da eta lanpostu kualifikatuak sortzen.
ITP Externals hemen garrantzi handia izango duen balio kate berria sortzeko abiatze-gunean dago.

**PREMIO TRAYECTORIA SPIN-OFF**
A finales de 2013, ITP crea ITP Externals para dar respuesta a nuevos retos estratégicos y tecnológicos.
En poco tiempo, la spin-off se ha revelado como un alumno aventajado que está abriendo nuevos mercados y creando empleo neto cualificado.
En definitiva ITP Externals está en la rampa de lanzamiento para producir una nueva cadena de valor, con una gran importancia local.

## educaedu

–

educaedu

**STARTUP IBILBIDE SARIA**
Educaedu Mikel Castaños eta Fernando Bakaikoak 2001ean sortu zuten on-line hezkuntza sareak ikasleak eta trebakuntza zentroak lotzen ditu direktorio eta bilatze-sistemen bidez eta ikasleen arteko elkarreragina erabiliz. Urte gutxitan enpresak hazkunde handi baina antolatua izan du eta marka globala bihurtu da; 20 herrialdetan eta 9 hizkuntzatan dago eta on-line marketing eta posizionamendu sendoaren adibidea da.

**PREMIO TRAYECTORIA STARTUP**
Educaedu es una red de educación online creada en 2001 por Mikel Castaños y Fernando Bacaicoa que vincula alumnos y centros formativos a través de directorios y sistemas de búsqueda, y de la interacción entre estudiantes. En pocos años, la empresa ha experimentado un fuerte pero ordenado crecimiento, convirtiéndose en una marca global, disponible ya en 20 países y en 9 idiomas, y en un ejemplo de fortaleza en marketing y posicionamiento online.

**Diru-laguntzak**
**Ayudas**
–

## Ekonomi eta Lurralde Garapenerako Sailak Bizkaiko ekintzaile eta enpresen esku jartzen dituen diru-laguntzak kudeatzen ditugu

Gestionamos los programas de ayudas que el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial pone a disposición de las personas emprendedoras y de las empresas de Bizkaia



### FINKATZE ETA HAZKUNDEA

- BERRIKUNTZARI, NAZIOARTEKOTZEARI ETA INBERTSIOARI LAGUNTZA INTEGRALA EMATEKO PROGRAMA
  Lehiakortasuna handitzeko laguntzak, berrikuntza, nazioartekotze eta inbertsioan ekintza orokorrak eginez.
- BERRIKUNTZA SUSTATZEKO PLANA
  Enpresen berrikuntza eta lehiakortasun gaitasuna areagotzeko laguntzak, haien lehiakortasuna berrikuntza proiektuen bidez hobetuz, berrikuntza hori teknologikoa izan nahiz ez, hurrengo arloetan: prozesua, produktua, antolaketa, parte-hartzea, merkatua, jabetzaren babesa, etab. Negozio-ereduarekin bat etorri behar dute eta enpresarentzat inpaktu handikoa izan.
- NAZIOARTEKOTZE PROGRAMA
  ETEak nazioarteko merkatuetara hel daitezen eta bertan egon daitezen laguntzak, esportatzeko egiten dituzten ekintzei bultzada emanez.
- ETEETAN INBERTSIO AURRERATUA EGITEKO LAGUNTZA. EETIFIL
  Enpresen lehiakortasuna hobetzeko teknologikoki aurreratuak diren inbertsioak bultzatzeko laguntzak, bereziki lehentasuna emanez 4.0 industriarantz aldatzeko ekintzei.

### SORKUNTZA

- ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILEEN GARAPENA // EKINTZAILE
  Balio erantsi handia eta hazteko aukerak dituzten enpresa proiektu berritzaileen bideragarritasuna aztertzeko laguntzak.
- ENPRESA BERRITZAILE BERRIEN SORKUNTZA
  Enpresa berritzaileen sorkuntza eta abian jartzea sustatzeko laguntzak.

### CONSOLIDACIÓN Y CRECIMIENTO

- PROGRAMA DE APOYO INTEGRAL A LA INNOVACIÓN, LA INTERNACIONALIZACIÓN Y LA INVERSIÓN
  Ayudas para incrementar la competitividad mediante acciones integrales en innovación, internacionalización e inversión.
- PLAN DE PROMOCIÓN DE LA INNOVACIÓN
  Ayudas para fortalecer la capacidad de competir e innovar de las empresas, mejorando su competitividad mediante proyectos de innovación, tanto tecnológica como no tecnológica, en las áreas de proceso, producto, organización, participación, mercado, protección de la propiedad, etc., coherentes con el modelo de negocio y de alto impacto para la empresa.
- PROGRAMA DE INTERNACIONALIZACIÓN
  Ayudas para potenciar el acceso y presencia de las PYMES en los mercados internacionales apoyando su acción exportadora.
- PLAN DE APOYO A LA INVERSIÓN AVANZADA EN PYMES AFIPYME
  Ayudas para apoyar inversiones tecnológicamente avanzadas para la mejora de la competitividad de las empresas favoreciendo particularmente el tránsito hacia la industria 4.0.

### CREACIÓN

- DESARROLLO DE PROYECTOS EMPRESARIALES INNOVADORES // EKINTZAILE
  Ayudas para analizar la viabilidad de un proyecto empresarial innovador con alto valor añadido y potencial de crecimiento.
- CREACIÓN DE NUEVAS EMPRESAS INNOVADORAS
  Ayudas para promocionar la creación y puesta en marcha de empresas innovadoras.







### SEKTORIALAK

- ARTISAUTZA
  Bizkaian artisautza sektorea dinamizatzeko eta berpizteko laguntzak, enpresa berrien sorkuntza bultzatuz, artisauen prestakuntza hobetuz eta artisautzaren jakintza zabalduz.
- BIZKAIA SORTZAILEA
  Sormen industriarekin -bere aplikazio eremu guztietan- lotutako jarduera ekonomikoko sektore sortu berriak bultzatzeko laguntzak.
- BIZKAIA DIGITALA
  Bizkaiko enpresen prozesu, produktu edo zerbitzuetan Gauzen Internet deritzona ezar dadin bultzatzeko eta dinamizatzeko laguntzak.
- EKINTZAILETZA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA
  Gizarte enpresa edo erakunde berritzaileen proiektu berriak abian jartzea errazteko eta Bizkaian gizarte enpresa edo erakundeen sorkuntza sustatzeko laguntzak.

### SECTORIALES

- ARTESANÍA
  Ayudas para dinamizar y relanzar el sector de la artesanía en Bizkaia, potenciando la creación de nuevas empresas, mejorando la formación de los y las artesanas y difundiendo el conocimiento de la artesanía.
- BIZKAIA CREATIVA
  Ayudas para potenciar nuevos sectores emergentes de actividad económica relacionados con la industria de la creatividad en todos sus ámbitos de aplicación.
- BIZKAIA DIGITAL
  Ayudas para apoyar y dinamizar la implementación de Internet de las Cosas en procesos, productos o servicios de las empresas de Bizkaia.
- EMPRENDIMIENTO E INNOVACIÓN SOCIAL
  Ayudas para facilitar la puesta en marcha de nuevos proyectos de empresas o entidades sociales innovadoras y promocionar la creación de nuevas empresas o entidades sociales innovadoras de Bizkaia.

# Zerbitzuak
# Servicios

–

*“Zerbitzu materialak, Beazko langileen laguntza eta etengabeko aholkularitza eta inguru paregabea direla-eta, BIC Bizkaia edozein proiektu berritarako abiapuntua da”*

***Joseba Sagarna***
*Addimen Bizkaia*

**ZERGA KALIFIKAZIOKO TXOSTENAK**
Berrikuntza teknologikoaren zioz zerga kenkariak eskatzeko kalifikazio txostenak egiten ditugu, lotesleak eta doanekoak.
Balorazioak aurreko zerga ekitaldiari dagozkio eta, soilik, Sozietateen gaineko Zergaren 11/2013 Foru Arauko 63. artikuluan arautzen diren 3.a eta 3.b atalei.
Zerbitzu hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta Beazek sinatutako lankidetza hitzarmenaren fruitua da.

**BARNE-EKINTZAILETZA**
Antolakundetatik bertatik negozio berriak sortzea errazten eta bizkortzen dugu, enpresa ekimen lehiakor eta jasangarri berri gehiago abian jar dadin.
Zerbitzuaren barruan gaikuntza, networking eta adituen laguntza daude.
Barne-ekintzailetza bultzatzeko ekimena Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lideratzen du hiru Lurralde Historikoetako BIC zentroekin elkarlanean. Beaz zentro horietako bat da.



**INFORMES DE CALIFICACIÓN FISCAL**
Emitimos Informes -vinculantes y gratuitos- de calificación para deducciones fiscales por innovación tecnológica.
Las valoraciones corresponden al ejercicio fiscal inmediatamente anterior y, exclusivamente, a los apartados 3.a y 3.b regulados en el artículo 63 de la Norma Foral 11/2013 del Impuesto Sobre Sociedades.
Este servicio es fruto del convenio de colaboración suscrito entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia y Beaz.

**INTRAEMPRENDIMIENTO**
Facilitamos y aceleramos la creación de nuevos negocios desde las organizaciones como medio para incrementar la puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales competitivas y sostenibles.
